

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Mari Aristi Kalonje

*Donostia,
Gipuzkoa
(1928)*

Aurkibidea



Biografia



Lugaritz auzoko Mercader baserrian jaioa. Igeldokoak zituen gurasoak. Sei senide ziren, eta familia baserritik bizi zen: ama San Martingo azokara joaten zen barazkiekin, eta seme-alabek esnea partitzen zuten, etxez etxe. Sei urterekin eskola publikoetan hasi zen, Heriz pasealekuan. Udan Igeldon egiten zuen hilabete, aiton-amonekin. 10 urterekin seminaria joan zen, apaizgai, lehenengo Mirakontxara eta gero Bergarara. Bokaziorik ez zuela jabetu, eta 14 urterekin Donostiara bueltatu zen. Merkataritza ikasi zuen orduan. "Listero" ibili zen eraikuntzako enpresa batean, eta gero Banco San Sebastianen hasi zen lanean. Hantxe ibili da erretiroa hartu arte. Intxaurrendora ezkondu zen, eta bi alaba ditu. Jarrai antzerki taldean ibili zen, eta Intxaurrendoko ikastola sortzen ere bai.

Zintak

DON-042

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-23
- **Iraupena:** 119 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze - Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Lugaritz auzoko Mercader baserrikoa

- **Erref:** DON-042/002
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:00:49. **Bukatu:** 00:03:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserríko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Mercader baserrian jaio zen, "Merker" esaten ziotena. Non zegoen. Munto eta Flores sagardotegiak. Aiete ez zen parrokia. Bi bizitzako baserría. Lugaritz auzoa.

2. Gurasoak, elkarren lehengusu

- **Erref:** DON-042/004
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:03:33. **Bukatu:** 00:06:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserríko lanak » Baserríko animaliak
- Baserría » Baserríko bizimodua » Baserríko bizimodua

Laburpena:

Oiloak, behiak, txahalak, txerriak. Zazpi senide ziren, baina bat umetan hil zen. Gurasoak lehengusuak ziren, igeldotarrak. Morroi eta neskame egon ziren toki berean. 19 eta 20 urterekin ezkondu ziren.

3. San Martin azokara berdurarekin

- **Erref:** DON-042/006
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:06:54. **Bukatu:** 00:09:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Baserritik bizi ziren. Esnea eta berdura salduz. Ama San Martin azokara joaten zen, autobusez. Marmitak. Etxez etxe esnea partitzen, anai-arrebak, Antiguan.</p>

4. Baserríko lanak mutikotan

- **Erref:** DON-042/008
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:09:34. **Bukatu:** 00:13:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserríko bizimodua » Baserríko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Baserriko lanak, mutikotan. Belar lanak, itaurrean, behizain, egurra txikitu... Bost mutil ziren, eta etxea ere garbitzen zuten larunbatetan. Argizaria. Igandetan, nork bere arropa plantxatu behar zuen eta zapatak garbitu. Plantxak.

5. Heriz pasealekuko eskola

- **Erref:** DON-042/009
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:13:28. **Bukatu:** 00:16:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

<p>Sei urterekin hasi zen eskolan. Heriz pasealekuko eskola publikoak. Erdaraz kalean ikasi zuen. Maistra: Kerejeta. Behin zaplatekoa eman zion, eta sudurretik odola geratu ezinik.</p>

6. Udan Igeldora, aitona-amonekin

- **Erref:** DON-042/011
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:16:15. **Bukatu:** 00:19:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

10 urtera arte egon zen eskolan. Udan, Igeldoko Joandegi Txiki baserrira joaten zen, euskara ez galtzeko. Aitona-amonengana. Hango gaiztakeriak: ezkutuan arrautza frijitu. Arto bizarrak erretzea gero etorri zen.

7. Hamar urterekin, seminariora

- **Erref:** DON-042/012
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:19:03. **Bukatu:** 00:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminariora
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Hamar urte zituela, parrokoak seminariorako aproposa zela esan zien gurasoei. Lehenengo Mirakontxara eraman zuten eta gero Bergarara, plazara.

8. Seminarioko bizimodua

- **Erref:** DON-042/014
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:21:16. **Bukatu:** 00:24:46

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa

Laburpena:

Seminarioa aldaketa izan zen, baina ez zitzaion gogorra egin. Zer ikasten zuten. Hango bizimodua. Diziplina handia, Bergaran. Jolasak. Lotarako, literak. Kalerako, sotana eta beka.

9. 13 urterekin etxera buelta

- **Erref:** DON-042/015
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:24:46. **Bukatu:** 00:28:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

13 urterekin etxera bueltatu zen, bokaziorik ez zuelako. Merkataritza ikasten hasi zen. Perito Mercantil. Non zegoen. Baserrira gutxien dedikatu zena da.

10. Belar metak egiten, udan

- **Erref:** DON-042/016
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:28:23. **Bukatu:** 00:31:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrira » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Udan, belar lanak. Metak. "Metatxorroak".

11. Arto-bizarrak eta sagardotegiak

- **Erref:** DON-042/018
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:31:43. **Bukatu:** 00:35:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Artoa, babarrunak... Arto bizarrak erretzen zituen, lagunekin. Inguruko baserriak eta jauregiak. Flores sagardotegia. Lehengo sagardotegiak nolakoak ziren: basoka, upel bakarretik. Prezioa. Jana etxetik. Toka eta errondak.

12. Sagardotegiak, tabernak eta erosketak

- **Erref:** DON-042/020

- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:35:40. **Bukatu:** 00:37:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Lehengo sagardotegiak. Upela non aldatu zuten jakiten zuten. Sagardotegiz sagardotegi. Tabernarik eta dendarik ez zegoen. Antiguana bai. Erosketak. Jatekoa. Ogi banatu egiten zuten.</p>

Transkripzioa

- Netzako sagardoteya sagardoteya zan lehengua. Eta gaiñea, alkarri "aizu, halako tokitan barrika berriya ireki dute e! Ta oso ona da". Zeatikan barrika bat ez zan /etzan/ egun batian eta bitan bukatzen. Eta igual pasatzen zituan astebete. Ta karo, jendiak " ze aldatu al dute halako tokitan zea... barrika, upela? Halako tokitan eta oso ona da". Pasatzen zeten alkar jendiak nun berriya zegon, eta nun zaharra zegon.

- Ta sagardotegiz sagardotegi ibiltzen zan jentia?

- Bai. Bai, bai.

- Baxokada bat hemen ta baxokada bat han.

- Baita.

- Bai?

- Baita, baita.

- Eta tabernarik bazeon inguru hortan?

- Ez, ez zeon /etzeon/ tabernarik.

- Eta denbarik?

- Nola?

- Dendarik? Janari dendarik?

- Ez da ere. Ez. Hortarako jaitsi behar gendun Antiguara edo bestela nola nere ama egunero-egunero juten zan San Martingo azokara, ba, konprak han iten zituan.

- Handik ze ekartzen zun oliyua ta hola?

- Behar zana.

- Azukrea ta... ?

- Behar zana. Behar genduna. Bai. Etxen ez zegona /etzegona. Ez zituen arrautzak eta patatak eta holakuak ekarriko, baiño oliyua, azukria, haragiya... Ogiya bertara ekartzen ziguten.

- Nundik? Nun iten zuten...

- Furgonetakin han etortzen zian panaderuak.

- Banatzailliak?

- Bai, bai, bai. Ordun, gaiñea, esaten ziyoten ogi haundi batzuk izaten zian "pan de tres". Ez dakit zeatikan zan. "Pan de tres" ogi haundi batzuk zian. Ordun, aber gure etxian bost mutillekin eta nexka... nexka beanduago etorri zan, ya hua...

13. Donostian gerra hasi zenean

- **Erref:** DON-042/022
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:37:59. **Bukatu:** 00:41:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Gerra hasi zenean, zortzi urte zituen. Oroitzapenak. Acorazado España itsasontziaren bonbak. Morlanseko trenbide tunela hautsi nahi zuten. Iturrian, aska. Lixiba. Lurrera erori zen. Frankistak Donostiara sartu zirenean.

Transkripzioa

- Gerra hasi zanian zortzi urte nituan.
- Ta gogoratzen dezu?
- Zerbait gogoratzen naiz, bai. Nola, zea, frankisten barku bat "España, acorazado España" zan uste det, etorri zan Kontxaraiño, Kontxako pareraiño, eta nola bota zituan bonba batzuk, bonba batzuk; eta bat erori zan juxtu-juxtu, oain badakizute Monpaseko... Monpas ez, Monpas da tunel berriya, zea, iriki dituen?
- A bai. Morlans?
- Morlans, Morlans. Hor zan trenbidia, hor zeon trenbidea. Eta nunbait nahi zuten tunel hori apurtu, puskatu. Eta bota zuten bonba bat, bota zituzten batzuk, gehiyo, baiño bat han erori zan juxtu-juxtu eta gure baserritikan harea egongo ziran zuzenian, "en línea recta" esaten dan bezela, berrehun metro o hola. Eta goatzen naiz nola ordun neon ama erropa garbitzen iturrin, kanpoko iturrin. Ez, etxian ez zegoen hola erropa garbitzeko ta tokirik, zeon aska bat harri batekin eta erropa... Lixiba deitzen ziyoten, lixiba. Da hitz bat ya ez dala erabiltzen.
- Ez da erabiltzen, ez. Lixiba egiten egoten zan ama hor...?
- Bai, bai, eta nola bonba hori bota zutenian hango esplosiyuakin ni lurrea erori nintzan. Hoi goatzen naiz. Beste batian goatzen naiz ere ai giñala... ordun ai zian frankistarrak donostira sartzen eta Oaldameneko menditara Oriamendi eta hoiyek ba pelean, batzuk besten kontra nola ai zian tiroka. Eta guk han zea bat, kaxko batetikan kaxko batetikan ai giñan ikusten, ez gendun ezer ikusten, baiño ikusten. Eta halako batian etorri zan abioi bat, bazabillen abioi bat abioi bat eta ordun egongo giñan talde bat ba hamar o hamabi o igual gehiyo persona hura ikusten. Eta abioi hori hasi zan jeisten, jeisten, jeisten, eta halako batian hasten da "tattatatata! mekauen!", danak korrika: "lurrea lurrea lurrea!". Ez zan ezer gertau, ez dakit, ez zuten asmatu.
- Eskerrak.
- Baiño hortaz ere goatzen naiz.

14. Anaia soldadu eraman zuten

- **Erref:** DON-042/023
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:41:08. **Bukatu:** 00:43:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Anaia zaharrena frontera joan zen, eta handik sei urtera oso aldatuta bueltatu zen. Ebroko eta Kataluniako kanpainak egin zituen. Eraman egin zuten.

Transkripzioa

- Ta zure familian norbait jun zan ihesi edo bestela frentera?
- Frentera bai, frentera anai zaharrena. Anai zaharrena hemezortzi urtekin jun zan frentera, bizarrrik gabe iya, biziyoik gabe, eta etorri zan handik sei urtera, bueno... Sei urte, pentsa zazu sei urte etxetik kanpo, ahal zuenian bialtzen zuenian etxera ba gustora, baiño sei urte etxetik kanpo. Etorri zan, bueno, ba erretzen zuan, edan...
- Ez ezagutzeko moduan orduan.
- Bai, oso aldatuta, oso aldatuta. Hori bakarrik jun zan e?
- Ta nun ibili zan hori?
- Bueno, ni goatzen naiz, ya bea hil zan oain dala sei urte o hil zan, baiño nola da herri bat...? Bueno, la "campaña del ebro" egin zuan. Gero sartu ziran "en Seo de Urgell", "Seo de" Urgeletikan Bartzelona're jun zan. "La campaña del Ebro y la campaña de Cataluña" egin zituan. Eta gero ez dakit nun ibilli zan. Egiya esan, ya ez naiz goatzen.
- Ze in zioten, deitu juteko, ala bere borondatez?
- Hartu, etxea etorri, hartu ta eraman.
- Eta eraman? Hola izaten zan, ez?
- Bai, hola izan zan: hemezortzi urte kunplitu zitunian, etorri ziran eta eraman zuten.

15. Listero bezala lanean, eta gero banketxean

- **Erref:** DON-042/025
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:43:12. **Bukatu:** 00:46:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Merkataritza egiten ziharduela, 16 urterekin, Oiarbide eta Urteaga eraikuntza enpresan hasi zen lanean, listero bezala. Legazpin eta Brinkolan. Nominak egin eta ordainketak langileei, eskura. Banco San Sebastian-en oposaketak atera zituen.

16. Banketxeko lana

- **Erref:** DON-042/027
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:46:33. **Bukatu:** 00:49:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Banketxeko lana. Kontabilitatea eramaten zuen. Liburuetan bezeroen kontu korrante guztiak zeuden. Eskuz apuntatu mugimenduak. Makina elektrikoak. "Punteatu". Taloiak.

17. Letrak kobratzeko modua

- **Erref:** DON-042/029
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:50:55. **Bukatu:** 00:52:34

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Letrak. Estankuan erosten zituzten enpresek. Banketxean utzi, eta dirua jasotzen zuten trukean. Gero, bankuak kobratzen zituen letrak.

Transkripzioa

- Ordun dana dana funtzionatzen zan letrak. Baiño ordun zian letra ofizialak. Ofiziala esan nahi dizut estankuan erosi behar zirenak. Gero etorri zan enpresa bakoitzak faktura egiterakoan letra ere egiteko aukera.

- Eta nola zan, estankuan erosten zan letra hori?

- Letra hoiek, bai, zuten segun ze kantidadeko letra egin behar zendun, letra zan prezio desberdiñekua.

- Ta nola funtzionatzen zun letrak?

- Letrak? Enpresa juten zan estankura eta erosten zitun letrak, erosi. Eta letra hoiekin gero juten zan "bueno, halakori kobratu behar diyoit hainbeste diru"; letra bete eta letra horrekin ze iten zun enpresak? Juten zan bankura eta iten zuan letrak bankuan utzi eta letra hoiyen kontura bankuak ematen ziyon dirua. Bankuen negoziyua zan "negociar letras, cuantos más letras mejor". Gero bueno hori zea asko dazka, gero letrak bueltan etortzen diranian eta komisiyuak eta bueno hori... Hortan ez gea sartuko.

18. 'Jarrai' antzerki-taldea

- **Erref:** DON-042/032
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:56:19. **Bukatu:** 00:59:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Jarrai antzerki-taldean zeintzuk ibiltzen ziren. Maria Dolores Agirren antzerki-taldea. Erdarazko lanak euskarara itzuli zituzten. Gizon zuzenak eta Ordu eroslea antzezlanak.</p>

19. Musika zaletasuna umetatik

- **Erref:** DON-042/036
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:02:40. **Bukatu:** 01:05:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Behizain zebilela kantatzen zituen kantuak. Irratian entzuten zituenak. Bere gisa ikasi zuen. Seminarioan hasi zen solfeoa ikasten, baina ez zuen jarraitu. Armonika. Kantatzeko ohitura.

20. Etxetik kanpora, dena erdaraz

- **Erref:** DON-042/038
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:05:46. **Bukatu:** 01:07:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Lehen, kantatzea debekatua zegoen taberna askotan. Euskaraz hitz egitea galarazita zegoen. Cara al Sol, eskolan. Etxetik kanpo, dena erdaraz.</p>

21. Lehen emaztea erditzean hil zen

- **Erref:** DON-042/041
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 01:08:50. **Bukatu:** 01:11:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikiak

Laburpena:

1962an ezkondu zen lehen aldiz. Burgoskoa zen emaztea, Oñakoa. Erditzean haurra eta ama hil ziren. Sendagilearen akatsa izan zela uste du. Bigarren emaztea errezildarra da, eta bi alaba dituzte.

Transkripzioa

- Nun ezagutu zenun zure emaztea izango zana?
- Ai, ai, ai, nere emaztea nola... Bueno, nik bi emazte izan ditut, hau bigarrena da. Ni ezkondu nintzan milla bederatzirehun eta hirurogeita bigarren urtean lehenbizi. Neska burgalesa zan, "de... a ver" herriya... ta da nerbiyoangatikan e? Oiña. Oiñakua zan. Eta ezknodu eta handik hamar hillebetea, bueno gelditu zan haurdun handik hillabetea. Eta handik hamar hillabetea, partoko garaiyan haurra eta bera hil ziran, biyak partuan. Nik ziur nago izan zala sendagillearen faillua. Zeatikan euki zuten bate... Esate baterako, gaur sartu eta handik hiru egunera oaindik oiñazetan eta ezer egin gabe egon zan. Eta hasi ziranian ya zerbait egiteko, ya ez zegon ezer egiterik; ez zegon ezer egiterik eta hil ziran biyak: umia eta ama. Bueno, gelditu nintzan berriz, orduan ze in nuan? Ordun etorri nintzan, ezkondu nintzanian lehenengo aldiz etorri nintzan Intxaurrendora; erosi gendun pixu bat eta etorri giñan Intxaurrendora bizitzera, ez etxe hontara, beste batera. eta orduan, bakarrik gelditu nintzanian jua nintzan berriz aita ta amen etxera. Ta bueno, denbora pasa zan, bi urte pasa ziran. Bi urte? Bai, bi, hiru. Ezautu nuan neska bat, oain nere emaztia dana, ta ezkondu giñan...
- Errezildarra?

- Errezildarra, hua errezildarra. Bat burgostarra, erdalduna, oso... Bueno, ze esango dizut? Neretzako oso neska zoragarriya. Baiño...
- Ta seme-alabarik badezute?
- Oain bai. Bigarren emaztiakin bi alaba.

22. Arrain saltzaileak

- **Erref:** DON-042/046
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 01:15:15. **Bukatu:** 01:15:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Arrain saltzaileak etxez etxe ibiltzen ziren. Antxoa. Angulak.

23. Etxeko ospakizunak

- **Erref:** DON-042/048
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:15:58. **Bukatu:** 01:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Etxean ospatzen zituzten festak. San Jose eguna. Gerraostean ez zuten goserik pasatu. Gabonak. Bazkariak. Karta jokoa.

24. Bigarren emaztea nola ezagutu zuen

- **Erref:** DON-042/049
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:17:50. **Bukatu:** 01:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Illunbe elkarteko bazkidea zen. Emaztea Aita Mari jatetxean zegoen lanean eta hala ezagutu zuen. Zinera joan ziren.

25. Korrikalari ere ibili zen

- **Erref:** DON-042/053
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:21:35. **Bukatu:** 01:23:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Kirolzalea da. Korrika egiten zuen Realean. Soldadutzan ere entrenatu egiten zen. Burgosera bidali zuten, lasterketa militar batera. Epaileak zaldian. Neguko krosak. Herrerako taldea.

26. Pleuresia nola sendatu zitzaion

- **Erref:** DON-042/055
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 01:25:48. **Bukatu:** 01:29:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Ilgande batean gurasoekin joan zen Igeldora, film bat ikustera. Gaixo zegoen, pleuresia zeukan. Kurandera. Berbena belarra, enplastoan. Urtebete bajaran. Estrektomizina.</p>

27. Saltsa guztietako perrexila

- **Erref:** DON-042/059
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 01:35:02. **Bukatu:** 01:39:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Saltsa denetan sartu da beti. Aieten auzoko festetan komisiona zegoen. Joxe Salaberria auzo alkatea. Intxaurrendoko Ikastola noiz eta nola sortu zuten. Iñaki Begiristain. "El pipas"-ek utzi zien lokala. Andereñoa, Etxeberria.</p>

28. Gure Nahia ikastola

- **Erref:** DON-042/061
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 01:39:55. **Bukatu:** 01:42:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Arantxa Etxeberria izan zen Intxaurrendoko ikastolako lehen andereñoa. Gure Nahia. Nola hazi zen ikastola. Salesianoetara joan ziren, gela eske. Herrerako Herri Ametsarekin batu ziren.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com